

Espediente mota: Administrazio kontratazioa. Prozedura irekia.

Kontratua: FORMAZIORAKO AHOLKULARITZA PROSPEKZIOA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK BURUTZEKO ZERBITZU KONTRATATAZIOA. LEHIAKETA PROZEDURA IREKIA.

Espediente zenbakia:

KONTRATAZINO MAHAIAREN BILKURAKO AKTA

1) Bilkurari buruzko datuak

- Bilkura eguna: 2016-07-29
- Ordua: 08:10
- Lekua: Intxausti kalea 2-ko azken solairuko batzar gelan.
- Kontratuaren xedea: FORMAZIORAKO AHOLKULARITZA PROSPEKZIOA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK BURUTZEKO ZERBITZU KONTRATATAZIOA. LEHIAKETA PROZEDURA IREKIA. PLIKAK IREKITZEA.
- Jardunbidea eta esleipen modua: Prozedura irekia.
- Hedabidea eta argitarapen ofizialaren data: BAO/BOB-ean 2016-04-22.

2) Bertaratu diranak

- . Mahaiburua: IDURRE BIDEGUREN GABANTXO A^a
- . Mahaikideak:
 - IDOIA PLATAS ARENAZA zinegotzi A^a
 - JON GOIKOLEA OJINAGA zinegotzi J^a
 - IKER AGUADO BRULL zinegotzi J^a
 - KARMELE MUÑO A ARRIGAIN A^a Jarduneango Udal Idazkaria.
 - EDURNE URRUTIA URIARTE A^a udal kontuhartzaile A^a
 - Mahaiko idazkaria: NESTOR LARRUZZEA ORMAZA J^a
- Beste batzuk:



- **Bilkuraren edukia eta erabakia**

Udal Idazkaria dan Karmele Muñoa andreak, gaiaren azalpena emoten dau, espedientearen nondik norakoak azalduz.

Laburbilduz, kontratazio honetara aurkeztu diran enpresen C) GUTUNAZALA irekitzeko deitu da batzarra.

Enpresa bi aurkeztu zirala gogorarazten dau; DAITEKE eta GEHILAN 2000. Azken enpresa honek ez eban kaudimena behar bezala kreditatu horretarako emondako epean. Ondorioz bere partehartzea bertan behera geratu da.

DAITEKE enpresaren B) gutunazala ireki eta txosten teknikoa aurkezten da mahai honetara, eskaintza egokia dala adieraziz.

Ondorioz, gaurko batzarrean C) GUTUNAZALA, eskaintza ekonomikoarena irekiko da. Baldintza pleguetan agertzen dan lizitazio prezioa 77.000,00€+BEZ%21 dala adierazi dau.

Jarraian, DAITEKE enpresaren C) GUTUNAZALA irekitzen da. Eskaintza: 75.000,00€ + BEZ%21.

ERABAKIA:

Guzti honen aurrean, kontratazio mahaiak zera erabaki dau aho batez:

DAITEKE enpresak aurkeztutako eskaintza abantaila handienekoa deklaratzeta eta horren aldeko esleipen proposamena helaraztea Tokiko Gobernu Batzarrari.

Esleipen erabakia hartu aurretik, DAITEKE enpresari HAMAR (10) laneguneko epea





emoten jako aurkeztutako dokumentazioa konpultsatzeko eta behin betiko bermea aurkezteko, esleipen prezioaren %5ari jagokona.

Bilkuraren gaia diran egitekoak amaituta, mahaiburuak 08:15 etan amaitutzat jo eban bilkura, eta mahaiko idazkaria nazan aldetik, bilkuraren akta egin dot.

MAHAIBURUAK

Izenpea

IDAZKARIAK

izenpea

